

Egunkariaren zerbitzuak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-02-12: 3.

Egunkaria ari zaigu Euskal Herriko mundu osoko berriak goizero euskaraz hurbiltzen; gauza arrunta herri gehienetan, baina arruntasun ximple honetara ohituak izan ez garenontzat hau berria da, eta zaila! Honetan ere diskriminatua izan da gure herria. Eta, noski, gero eta urrunago ari zaigu euskara geratzen, eta galtzen!

Irratia izan zen lehen urrats hau eman zuena, eta gero, ETB.

Hauek ere harigarriak egin zitzaigun!

Garrantzi handia du entzumenaren bidez euskara jasotzea, baina euskara idatzia da, azken finean, herri baten hizkuntza finkatzen duena, hau da egitan alfabetatzen gaituena.

Eta hauxe da gaur falta zaiguna: irakurtzen hasteko, saioak, zientzi lanak eta literatura aberasteko. Euskara entzuna da oinarri-oinarrizkoa; hitzegiten den hizkuntza bada ere hau mantentzen eta indartzen duena; honetxegatik arduratzen gara hainbeste kalean euskaraz behar hainbat entzuten ez dugunean!

Eta ez naiz zentzuz kontrako zerbaite esaten ari.

Bizidunen komunikabide arruntena eta beharrezkoena hitza da!

Halere, XV. gizaldian inprenta asmatu zenez gero, hizkuntza idatzia da hau finkatzen duena.

Zertan ari naizen jakina den hau errepikatzen?

Hizkuntza idatziari lotuta dagoen beste zerbaite aipatzeko.

Orain dela gutxi irakurri dut Bilboko Udalean Euskal Zerbitzuko buru den Jokin Gallastegik *Bilbao* aldizkarian diona: 40.000 euskaldun bizi direla sakabanatuak; hemen "urtuta gaude", dio, eta arrazoi handiz. Hau bera entzun izan diot askotan Bilbon euskara bizkortzeko ahalegin guztiak egin dituen Xabier Gereño, euskaltzaleari; batez ere Bilbon antolatutako hileroko Afari euskaldun haiek mantentzerik izan ez dutelako. Bestalde, arrazoi beretsuak eraginda EGUNKARIAn (urtarrilaren 27) Joseba Santxo eta Koldo Tapiaren elkarrizketa Edorta Jimenezek, Kepak eta Juan Luis Zabalak lagunduta, ongi jaso. Ibar Ezkerrean eta Getxon gertatzen denaz ari dira.

Euskaraz erakustea oinarrizko lana da, noski, baina euskaldun berriak gutxiengoa nabarmenean dauden hiri edo lurraldetan oso zaila egiten da euskaldun horiek beren artean harremanetan jartzea; eta erabiltzen ez dena, lurrinduta bezala desagertzen da. Larria da, benetan, gizon langile hauek planteiatzen duten arazoa.

Nik ezin dezaket hemendik konponbiderik eman, baina kazetari gisa galdetu nahi diet euskaltzale horiei, ea EGUNKARIA kaleratzeak ez dien laguntzarik eman. Nire ustez, beste ezaugarrien artean nabarmenena: euskaldunak erosten dute; gutxi edo asko dakitenak, baina hizkuntzan aurrerago sartzeko bide bat denez, goizaldian euskal irrati bidez entzute dituenak, euskara idatzian sartzeko laguntza handia emango diote, segur naiz. Hara hemen eguneroko ikasgaia, beretzat interes handia dute berriaz jabetzea.

Edozer hizkuntza ikasi duenak badaki hau: entzutea eta irakurtzea elkarrekin edo egitea dela lagungarrien.

Gainera, EGUNKARIAk eman dezake, beste hizkuntzetan ematen duen bezala, bilerak sortzeko parada; bai gaiez, bai euskara beraren jokoaz ere, eta idatzi dezakete bertan.

Ea euskara mintzatua arintzeko balioren bat aurkitzen diozuten denon egunkari idatzia eta euskalduna den honi.